

LAS HIJAS DEL MAR / DAUGHTERS OF THE SEA

# Lurrak urruntzen duena itsasoak elkartzen du

NAIA ARANTZAMENDI

Gemma González Martínez zuzendariak itsasoa jarri du elkarrizketarako gai gisa bere lehenengo film luzean. Bere lan egiteko moduaren erakusgarri den film gisa definitu du proiektua, hain zuzen ere, duela hamar urte sortu zuen KulturFemme berdintasun zigiluaren oinarri berbera baitu filmak: tradizioz leku gutxi izan duten emakumeen ahotsak ozen entzunaraztea.

## Lehenik eta behin, nola iritsi dira haenyeo urpekariak zure bizitzara?

Nire familiaren historia eta familiak itsasoarekin izandako harremanak ikertzen hasi nintzenean egin nuen topo beraiekin. Nire aitona arrantzalea zen. Galiziatik Gipuzkoara etorri zen lan egitera eta, hari horri tiraka hasi nintzen, aitona inguruko istorio bat aurkituko nuelakoan, baina zenbat eta gehiago ikertu, hare gehiago lotzen nuen istorioa amonarekin. Izan ere, aitona zen itsasora ateratzen zena, baina amonak eusten zion gairontzeko guztiari, familia ekonomiar, etxeari, seme-alaben hezkuntzari, eguneroko antolaketari eta baita familia barruko kultura zein baloreen transmisioari. Prozesu horretan barneratuta nengoela ikusi nituen estreinakoz Jejuko *haenyeo* irudiak. Emakume urpekariak, haietako asko helduak, itsasoan lan eginez familia zein komunitateak sostengatuz. Eragin handia izan zuen nigan.

## Eta beraiekin elkartu zinen lehenengo unean.

Beraiek ezagutzeko aukera izan nuenean zerbait zoragarria gertatu zitzaidan. Etxetik 10.000 kilometrora nengoen, baina emakume haiek nire amona gogorazten zidaten. Une horretan konturatu nintzen istorio bat zegoela.

## Fisikoki urrunduta dauden —Hego Korea eta Euskal Herria— bi komunitateren arteko elkarrizketa planteatzen duzu filmean.

Hasiera batean zerikusirik ez duten bi leku dirudite; kultura ezberdinak, lanbide ezberdinak. Baina hori izan zen interesatu zitzaidana. Emakumeak entzutean lanbidetik haratagoko konexioak agertu ziren: inguruarekiko harremana, ahalegin fisikoa, itsasoaren ezagutza, bizitza antolaketak... Baina nire asmoa ez zen komunitate horien arteko antzekotasunak bilatzea, kostalde bien arteko elkarrizketa bat eragin eta zer gertatzen zen ikustea baizik. Ideia hori filmaren bihotza bilakatu zen; lurrak banatzen duena itsasoak elkartzen du.

## Zer da beraientzat itsasoa?

Lanbidez haratago, bizitzeko modu bat da. Itsasoak ordutegiak, urtarok, familia harremanak eta lan egiteko moduak zehazten ditu. Baina ez nuen erromantizatu nahi. Alde gogorra ere hor dago, eta emakume haiek ongi ezagutzen

dute: esfortzua, hotza eta arriskua. Itsasoa identitatea, askatasuna, harrotasuna eta pertenezia da beraientzat.

## Dokumentalak errelebo falta duten lanbideei ahotsa ematen die.

Filmean modu naturalean agertzen den gaietako bat da. Lanbide horietako bat desagertzen denean, ez dugula lanbide bat galtzen soilik, belaunaldiz belaunaldi eraikitzen joan den ezagutza ere galdu egiten dela. Itsasaldiak, eguraldi aldaketak zein ziklo naturalak irakurtzeko duten jakintza zein ezagutza hori ez dago idatzia. Ezin dugu duela 50 urteko ofizioak bere horretan mantentzeko nahia izan; eraldatu egin behar dute, gizartearekin batera. Baina zein ezagutza babestu nahi dugun eta nola transmititu behar diegun hurrengo belaunaldiei hausnartu beharko genuke.

## Ofizioaz haratago lanbide horiek transmititzen dituzten baloreak, bizitza erritmoak eta inguruarekiko duten harremanak geroz eta urrunago daude gaur egungo bizimodutik.

Guztiz. Geroz eta azkarragoa eta indibidualistagoa den gizarte batean bizi gara eta emakume hauekin topo egiteak birpentsatzera behartzen gaitu. Beraien bizitza idealizatetik urrun beraien harremantzeko modutik zein inguruarekin duten lotura horretatik zer ikasi genezakeen galdetu beharko genioke gure buruari.



Gemma González Martínez.

ULISES PROUST

WINNIPEG. EL BARCO DE LA ESPERANZA

# Ez dezagun elkartasunaren balioa ahaztu



Beñat Beitia, filmaren zuzendari zein gidoilaria.

ULISES PROUST

N. A.

Filmari izenburua ematen dion Winnipeg ontzia Frantziar jatorriko ontzi baten izena da, 90 lagunentzako eraikia izan zena, baina Espainiako Gerra Zibilaren amaieran, gerratik ihesean bizitzeko aukera baten bila

abiatu ziren 2.578 errefuxiatu hartu zituen.

Beñat Beitia eta Elio Quirogaren zuzendaritza duen *Winnipeg, itxaropenaren ontzia* filmak isiltasunaren herentziarekin hautsi eta oroimena transmititzeko ezinbesteko ariketa egiten du; milaka pertsona anonimoren tra-

gedia jarraitu eta nazioarteko sare baten elkartasunari esker beharrezko laguntza lortu eta urrutiko lurretan bizitza berri bat bilatzeko bidaia erdigunean jarrit. "Isilarazi zituzten pertsonen minak zein beldurrak berreskuratzea izan da guk egindako ariketa, isildua izan den gertakari historiko bat bistaratzea", argitu du Beitia zuzendariak.

Frankoren tropek Bartzelona hartu ostean kokatzen da filmaren hasiera, Victor, aita alarguna, eta bere alaba Julia ihesera behartuta ikusten diren unean. Testuinguru lazarriaren aurrean erabakiak hartzea behartuta dagoen pertsonaia helduari kontrapuntu egiten dio zazpi urteko hauraren goxotasunak. Bere begiradaren bitartez istorioa beste modu batera bizitzeko aukera zabaltzen da, alegia, jolasetik eta plazeretik. Baina askoz gehiago irudikatzen du Juliaren rolak, nahitaez, etorkizunaren ikur bilakatzen baita. "Juliaren begiradaren bitartez etorkizun bat lortzeko aukera zabaltzen dugu. Hori izan baitzen azken finean Winnipegek eraman zuena etorkizuna".

Delia Carrilek zein Pablo Nerudak —garaian Espainiako immigrazioarako kontsula zen Parisen— bultzatutako ekimenari esker milaka bidaiari hartu zituen ontziak, Frantziatik Txilera egindako bidaian. Horrela modu natural batean sortu zen Txilerekin koprodukzioa proiektua aurrera ateratzeko orduan.

Itsasoaz haratago, oster, istorio honek ez du oihartzunik izan; gertaera baten argi zein ilunak agerian uzten dituelarik. "Txile hasieratik sartu zen proiektuan, hain zuzen ere, bertan istorio hau ezaguna delako. Beraiek izan ziren laguntza eskaini zutenak eta harro daude egin zuten horretaz", azaltzen du Beitia.

Gertaera historiko bat islatzeak dakarren ardura bere gain hartu eta, errespetu osoz, kontakizuna esperientzia zinematografiko bilakatu dute. Narrazioak bereziki ondo kudeatzen ditu emozio uneak eta baliabide artistikoek, animazioaren teknikaz haratago, aktoreekin egindako zuzendaritzak, zein soinu bandaren zehaztasunak filma boroiltzen dute.

Dokumental animatu gisa definitu daitekeen pelikulak zabaltzen duen elkartasun zein gizatasun mezuak oihartzuna izan du mundu mailan, hain zuzen ere, ibilbide internacional aparta egitea lortu baitu, tartean, Annecy zein Shangaiko jaialdietako sail ofizialetan parte hartzearekin.

Filmaren zentsua, azken finean, ikusleengana ailegatzea izan ohi da, baina kasu honetan, hare gehiago. "Gertaera bizitakoek zein beraien oinordekoek harrotasuna sentitzea bilatzen genuen, beraien istorioa ezagutzera emateko ardura izan dugu".

Kontakizuna ezagutzera emateaz gain, gizartearen begirada eraldatzea izan baita zuzendarien jomuga. "Gure helburua argia zen, ikusleek laguntza behar duten horienganako begirada aldatzea. Eskua luzatu dezagun, gurekin egin zuten bezala. Hortaz, aitorza eta eskertza ariketa bat ere bada, bizitza hobe baten bila abiatutako horien guztien herrialdean hartu eta beraiekin, hau da, gurekin, izan zuten elkartasunari aitorza".